Bestelako Xedapenak

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

2392

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 2koa, Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordearena, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2009ko urtarrilaren 22ko Aginduan jasotako dirubaliabideen zenbateko berria argitara eman duena. Izan ere, agindu horren bitartez mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu pilotuak gauzatzeko dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 28ko 242/2000ko Dekretuaren babesean 2009ko ekitaldian eman beharreko dirulaguntzetarako deialdia egin da.

Azaroaren 28ko 242/2000 Dekretuaren itzalpean mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu pilotuak gauzatzeko dirulaguntzetarako deialdia egin duen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2009ko urtarrilaren 22ko Aginduaren bigarren artikuluan ezarritakoaren arabera (2009ko otsailaren 18ko EHAAn, 34. zk., argitaratua) deialdi horren barruan eman beharreko dirulaguntzen guztizko kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura jarriko da eta ez da 250.000 eurotik gorakoa izango. Edonola ere, indarrean dauden legeekin bat etorriz aurrekontuetan aldaketak egiten badira, zenbateko hori aldatu ahal izango da. Halakorik gertatuz gero, aldaketa horietatik datorren aurrekontuko diruizendapenaren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratukotako Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Alde horretatik, Landa eta Itsasertzeko Garapeneko zuzendariak erabaki du, dagozkion izapideak egin eta gero, kreditu propioak 488.740 euro handitzea 2009. urterako. Beraz, programa horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura 2009. urterako eman beharreko laguntzen kopuru osoa 738.740 eurokoa da.

Aurretik esandakoari jarraiki, eta Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Idazkera Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza-Dekretuaren 49.2. artikuluan eta aipatutako 2009ko urtarrilaren 22ko Aginduan aurreikusitakoarekin bat etorriz, bidezkoa da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian aipatutako aldaketa hori argitaratzea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

2392

RESOLUCIÓN de 2 de abril de 2009, del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero, por la que se da publicidad al nuevo importe de los recursos económicos recogido en la Orden de 22 de enero de 2009, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se procede a la convocatoria, para el ejercicio 2009, de las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña previstas en el Decreto 242/2000, de 28 de noviembre.

En el resuelvo segundo de la Orden de 22 de enero de 2009, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se procede a la convocatoria, para el ejercicio 2009, de las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña previstas en el Decreto 242/2000, de 28 de noviembre (BOPV, n.º 34, de 18 de febrero de 2009), se establece que el volumen total de las ayudas a conceder procederá de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y no superará la cantidad de 250.000 euros, sin perjuicio de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. En tal caso, la consignación presupuestaria que resulte de la aprobación de dichas modificaciones se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero.

En este sentido, la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, ha acordado, previa realización de los trámites oportunos, la ampliación de los créditos propios destinados para el año 2009 en la cuantía de 488.740 euros. En consecuencia, el volumen de las ayudas a conceder para el ejercicio 2009 en la citada convocatoria asciende a la cantidad de 738.740 euros provenientes de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De acuerdo con lo anteriormente dicho, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.2 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como en la mencionada Orden de 22 de enero de 2009, procede la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la precitada ampliación.

Horren indarrez, honako hau

EBATZI DUT:

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2009ko urtarrilaren 22ko Aginduan jasotako diru-baliabideen zenbateko berria argitara ematea, 488.740 eurokoa hain zuzen ere. Izan ere, agindu horren bitartez mendi nekazaritzako eremuetan landa garapeneko proiektu pilotuak gauzatzeko dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 28ko 242/2000ko Dekretuaren babesean 2009ko ekitaldian eman beharreko dirulaguntzetarako deialdia egin da (2009ko otsailaren 18ko EHAAn, 34. zk., argitaratua). Aipatutako diru-kopuruak 2009. urterako ordainketa-krediruetarako dira, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jasotako funtsetatik datoz.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 2a.

Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordea,
LUIS MIGUEL MACIAS PEREDA.

En su virtud,

RESUELVO:

Dar publicidad al nuevo importe de los recursos económicos recogido en la Orden de 22 de enero de 2009, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se procede a la convocatoria, para el ejercicio 2009, de las ayudas a proyectos piloto de acción rural en zonas de agricultura de montaña previstas en el Decreto 242/2000, de 28 de noviembre (BOPV, n.º 34, de 18 de febrero de 2009), que asciende a la cantidad de 488.740 euros. La cantidad citada corresponden a crédito de pago para el año 2009 provenientes de fondos propios destinados en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de abril de 2009.

El Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero,
LUIS MIGUEL MACIAS PEREDA.